

LINO AKESOLO

ALKAR

Berez, nire barruan asmetan dodan zorra ordaintzera natorkik. Lan kaskarra dok, baiña gogo beroz eta atsegiñez egiña, lagunak lagunari egin leikiona.

Ez gintzuazan ezagutu mutil naustu biren izenean, ez abade ta lekaide izenean. Ortik aparte izan genduan alkarrenganako lera ta eder-etsia. Bilboko plaza barrian, euskal aize ta liburuen usaiñean, giroak berak alkar ezagutzera eroan giñuazan.

ERRIA TA IDAZLEAK

Alde batetik, alde a etzuan ba-pere eder etsia gure erriarentzat.

Gaur, ezin jituat sinistu ere egin orduan egiten ziran zapaltzeak, diru-ketzeak eta ilteak, baiña or geratu dok munduak dirauan arteiño ta gure erria beren esku-bide guztiekin baztertua ta beratua zuan.

Inguru latz orretan ezagutu iñuaten sorterriari begira, beti, onginaiez ta ama lurraren izkuntza, aurrera eroan ta sendotu ta edertu nairik bere sortzezko izate bardin gabeen.

Izkuntza erriarena dala jiñuek jakintsuak ao batean. Egi au indartsua dok bere sendotasun ta edertasun guztiagaz.

Bide orretatik joan izan dituk gure euskal idazle ospetsu ta aundiak Aita Bartolome, Mogel, Eguzkiza, Ibagutxi, Lauaxeta, Azkue, Lizardi, Santi Onaidia, Lekuo-na Manuel, Oar-arteta ta abar ta abar...

ITURRIRA

Oneen guraria irea legez bardin izan zuan eskolatik urtenta basetxerik basetxe ibiliaz erriaren sena artzea. Iturrira joaten ziñen ur garbia artzera ta ez kaletako gelara.

Gure izkuntzak mendietan, artzaintzan ta baserrietan izan jua bere sorrera ta giro ortako gizonak, euren jatorrizko almenen bidez, zelaiaren gardentasuna daroan izkuntza sortu juen.

z Euskera, benetan, dok burutsua, ederra ta aberatsa. rak

LANDU TA EDERTU

Aditzari begiraturik, oroigallu aundi bat dok, bizitzako zertzeladak bere erraietan josita daroazelarik.

Benetan, era ortako berbeta sortu al izateko, gure arbasoen buruak be bereziak izan bear juen.

Zentzuna, argia, indarra agertzen dituk euskal berbeta zoragarrian. Argitasuna ta ederra maite dituanak, bertan bera, ezin itzi, landu ta edertu barik, asaben izkuntz zarra.

DIMA'M JAIOA

Izan bere, Dimako Oban sortzea, mendi arteko baratz eder batean jaiotea dok.

Edonork ez jok ikusi ta artzen euzko mendien liraintasuna, baiña gure mendietan jaio diran giza-seeak, euzko lorak, orrek ba jakiek zoramena, ederra, ezta non dagon.

Ik ortxe, xurgatu eban, erleak loretan legez, euzko bizitzaren jario berezia.

EDERRA TA IZKUNTZA

Alderdi ortako arkaitz, mendi arru, solo, iturri, arizti, soloen ikuskizun orlegiak esnatu euen ire gogoia lurraren eder-miñez. Ta geroztik dei egin deuek, beti, ire buruan, biotzean, odolean, izate guztian.

Eder ori barruan sartu ta gozartu ondoren, nor egon leitekek ederrari, norbere lurrari, ederra zara ezan barik?

Baiña lur onen erraietan gure arbasoak sortu ta landu eben bitxirik zoragarriena, euzko endaren izkuntza izan dik, millak urteetan seme-alabeen etorkizunera erabilia.

Seme on batek amaren bizia bikaindu bear daua lez, ik, or, urtu dok zati on bat ire biziaren grazia.

Oroigallu bat jaso deutsek Euskalerrian, euskerari.

, mait Orok dala ta maitek agurtzen au eus e
Orrok dala ta maitek agurtzen au eus e
Orrok dala ta maitek agurtzen au eus e
Orrok dala ta maitek agurtzen au eus e

IZTEGIA

Baiña larrosarik etxak arantzarik barik ta ire bizia ere jazarpendua ta atxilotua izan zuan iru urteren buruan. Alan bere, ez eban, bertan bera, itzi gure erriaren arimea, enda batek sortu leikean bitxirik biotzkorrena.

Zenbat liburu ta idazkai albistari ta aldizkarietan...!

Ezin kontau ala... Ta danak beste irakaskintzako lanekin batera, tarteka, egiñak... Zintzotasuna ta erriaren aldeko lanerako gogo ona, era orretan agertzen dok.

Azken aldi onetan emon deuskuk erraldoi baten lan aundia. Urteak, egunak ta orduak batez bere, ezin esan beste, emon dituk lanean, Euskalerrriak bere babesean artu daben iztegia sortzen.

Lan onek agertzen jok euskeraren ezaupide sakona, izkuntzaren aldeko zaletasuna ta onez gaiñera, maite dan izkuntza oberenaren alde dana emon bear dok, ta ortik urten jok arriak eurak be arrituta itzi dituan euskal iztegi zoragarria.

Bizitzako nekeak ta jazarpenak dituk batez be, gizonaren lana aintzakotzak artuazo eragiten dituenak lanaren beraren edertasunetik aparte.

Zorionez urte askokoa izan dok lana.

Obatik, begiak artu alan, ikusten dan ikuspegia, oso ederra dok, baiña ori baiño ederragoa ik Euskalerrriar ta euskerari izten deutsan lan aberats ikusgarria.

PAULIN

LINO AKESOLO

Goietan dabil ipar aizea
Dimoztarren mendietan,
egun-sentiko eguzki printzak
unorea egoetan;
oro da eder solo ta arizti
arkaitz aintzagarrietan,
zeruko izar amesgarriak
saltari urre bitsetan.

Zelai ederra amestuteko
lore zurien barria,
mendi garaiak orbiztuten dau
irudi arrigarria;
gainik gain doa arrano nausi
egaz, lilluragarria,

izadi oro berbetan dabil
zorakor ezaugarria.

Lino mutillak era orretan
ezagutu eban lurra,
ta dana eukan begi begira
opaka biotz agurra;
nork ez dau maite ta azalduko
euzko izadi adurra,
opaka daukan ama onaren
bizitza eder samurra.

Ori dala-ta, guda ostean iru urte espexetan,
bide batetik, beti, joan zan
lantzen euzko gogoetan;

ekin ta jarrai, gogoz, idazten
euskaldun arazoetan,
Gorbeaz goitik jaso artean
euskera bere senetan.

Beti lanean eta burrukan
iñoiz aspertu barik,
ori da lana goratzen dauna
bizitza ezilkorturik;
Euskalerrria eta euskera
dadukazuz arriturik,
bizitz onetan izten dituzun
lan ta iztegi orniturik.

PAULIN